

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Foru Erkidegoaren ibaien emariaren berri ematen du denbora errealean

Navarra.es webguneko erabiltzaileak Ingurumeneko kontrol-sareak ematen duen ibai-ibilguen kalitate eta edukierari buruzko informazioa eskura dezake

Lunes, 07 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak "[Ura Nafarroan](#)" web-aplikazioa abian jarri du, eta bertatik Nafarroako Gobernuaren eta Ebroko eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoen kontrol-sarearen estazioek ematen duten edukiera eta kalitatea egiazta daitezke denbora errealean. Sare horrek 100 estazio ditu, eta haietatik 39k datuak emateko sistema telematikoa dute.



Ultzama ibaiaren gaineko zubia (Arre, Ezkabarteko Ibarra).

Era horretan, berriki izandako euriteek eragindako uhandian Nafarroako ibaien bilakaera azter daiteke. Gaur, irailak 7, goizeko lehen orduan, webguneak alerta aurreko bi egoera aurkezten zituen [Arga ibaiak Funestik pasatzean](#) zuen emariagatik eta [Arakil ibaiak Etxarretik pasatzean](#) zuen emariagatik. Sistemak jasotako datuen arabera, [Oharrietik pasatzean Baztan ibaiak](#) agertzen zuen egoera normalizatu da dagoeneko atzo gunen horretan uholdeagatik alerta-egoera ezarri ondoren. Ibaiaren emaria iragan urriaren 24an 0,77 metro kubiko segundokoa izan zen eta, atzo, 11:50ean, 382,79 metro kubiko segundoko, ibaia gehieneko 4,23 metroko mailara iritsi zenean. Une hauetan Baztan ibaiko uraren maila nahiz emaria behera egiten ari da.

Kontrol-estazioek hautemandako ur-edukieraz gain, [Ura Nafarroan](#) webgunea 14 kontrol-estaziok bidaltzen duten uren kalitateari buruzko datuak sartzeko hasi da denbora errealean. Estazio horiek 8 aldagairainoko neurketak egiten dituzte: uraren tenperatura, ph, eroankortasuna 20 ° C-n, disolbatutako oxigenoa, uhertasuna, murrizketa-potentziala, nitrogeno amoniakala dagoen eta SAC maila (uretan disolbatuta argi ultramoreak xurgatzen duten substantzien neurria).

Webgunean Nafarroako baliabide hidrikoen inguruko dokumentazioa jasotzen da; bertan zenbait datu agertzen da, Nafarroako ibaietan 10.000 Hm3/urtean inguru isurtzen dela, esaterako, eta kopuru horretatik erdia

gutxi gorabehera gure lurraldean eroritako euriagatik. Horri bildutako lurpeko uraren kopurua gehitu beharko zitzaion eta, kalkuluen arabera, 1.325 Hm³-ra heltzen da. *Ura Nafarroan* webgunea osatzen da: ibaiak lehengoratzeko proiektuei buruzko informazioarekin, uholdeak izateko arriskuari buruzko azterketekin, estatistika eta memoriak datu historikoeekin, Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen urari lotutako Europako proiektuekin.